Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

221

5/2011 DEKRETUA, 2011ko urtarrilaren 18koa, lehendakariarena, Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatzeko Aholku Batzordeko batzordeburua eta lehenengo batzordeburuordea izendatzeko dena.

Lehendakariaren urtarrilaren 11ko 1/2011 Dekretuaren bitartez Giza Eskubideetan eta Bakean Hezteko Aholku Batzordea sortu eta arautzen duen otsailaren 10eko 31/2009 Dekretua aldatu da eta Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatzeko Aholku Batzordearen osaketa ezartzen da eta Dekretu honen bigarren artikuluak ezartzen du Aholku Batzordea batzordeburu baten esku izango dela. Agindu berean jasotzen da Aholku Batzordean Administrazio Publikoen izenean Lehendakaritzaren ordezkari bat izango dela eta ordezkari hori Aholku Batzordearen lehenengo batzordeburuordea izango dela.

Era berean, urtarrilaren 11ko 1/2011 Dekretuaren hirugarren artikuluaren bitartez 31/2009 Dekretuaren 4. artikuluaren lehenengo paragrafoa aldatu da, eta lehendakariari egozten zaio Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatzeko Aholku Batzordeko batzordeburua izendatzeko eskumena eta 31/2009 Dekretuaren 4.a) artikuluarekin –dagoenean jarraitzen du artikulu honek– bat etorriz, Lehendakaritzaren ordez aholku batzordeko batzordeburuordea izendatzeko ahalmena ere berari dagokio.

Ondorioz, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.– José Ramón Recalde Díez jauna Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatzeko Aholku Batzordeko batzordeburua izendatzea.

2. artikulua.– José Manuel Salinero Feijoo jauna –Lehendakaritzako idazkari nagusia– Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatzeko Aholku Batzordeko lehenengo batzordeburuordea izendatzea.

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

221

DECRETO 5/2011, de 18 de enero, del Lehendakari, por el que se nombra al Presidente y al Vicepresidente primero del Consejo Consultivo de Convivencia Democrática y Deslegitimación de la Violencia.

El artículo segundo del Decreto 1/2011, de 11 de enero, de modificación del Decreto 31/2009, de 10 de febrero, de creación y regulación del Consejo Consultivo de Educación en Derechos Humanos y por la Paz, por el que se establece la composición del Consejo Consultivo de Convivencia Democrática y Deslegitimación de la Violencia, determina que el Pleno de dicho Consejo Consultivo estará presidido por un Presidente o Presidenta. En ese mismo precepto se recoge que, por parte de las Administraciones Públicas, formará parte del Consejo Consultivo una persona en representación de la Lehendakaritza que ostentará la condición de Vicepresidente primero o Vicepresidenta primera.

Asimismo, por medio del artículo tercero del Decreto 1/2011, de 11 de enero, se procede a la modificación del párrafo primero del artículo 4 del Decreto 31/2009, y se atribuye al Lehendakari la facultad de designar al Presidente o Presidenta del Consejo Consultivo de Convivencia Democrática y Deslegitimación de la Violencia, a quien corresponde también, de conformidad con el artículo 4.a) del Decreto 31/2009, que mantiene su redacción original, la facultad de designar a la persona que, en representación de la Lehendakaritza, ha de ostentar la Vicepresidencia primera de este órgano consultivo.

En su virtud,

DISPONGO:

Artículo 1.– Nombrar a D. José Ramón Recalde Díez, Presidente del Consejo Consultivo de Convivencia Democrática y Deslegitimación de la Violencia.

Artículo 2.– Nombrar a D. José Manuel Salinero Feijoo –Secretario General de la Presidencia– Vicepresidente primero del Consejo Consultivo de Convivencia Democrática y Deslegitimación de la Violencia.

3. artikulua.– Dekretu hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan.

Abu Dhabin (Arabiar Emirerri Batuak), 2011ko urtarrilaren 18an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Artículo 3.– El presente Decreto surtirá efectos desde el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Abu Dhabi (Emiratos Árabes), a 18 de enero de 2011.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.